

Trena

Rai Bueno Errandoneak idatzia




PARAISO ANTZERKIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZA ZENTROA

GIDA DIDAKTIKOA

Laguntzaile



Kolaboratzaile



Honakoekin elkartua




ANTZEZPENAREN AURRETIK

ANTZEZPENERAKO GONBITA.

Eskutitz misterioitsu bat heldu da ikasgelara, eta haurren buruetan galderak pilatzen dira: Zer ote da? Zer usain du? Leuna da? Zer du barruan? Nork bidali du?

Oi, ustekabea! Oskar izeneko ume baten aitak, amak eta aitona bidali duten eskutitza da.

Haurrak antzokira joateko eta “TRENA” izenburua duen istorio ederraz gozatzeko gonbita da, hain zuzen, eskutitza. Oskarren bosgarren urtebetetzearen bezpera gauean haren familiaren etxean gertatutakoari buruzko istorioa da “TRENA”.



ANTZEZPENAREN ONDOREN

➤ OSKARREN JOSTAILUAK.

Oskar lotara joaten denean heltzen da egunaren unerik ederrena. Aitonak ipuinak asmatzen ditu, bata bestearen atzetik, loari dei egiteko.

Aitonaren ipuinetako protagonistak Oskarren jostailuak dira beti:

- “Beti mutu” jirafa.
- “Beldur gabe” lehoia.
- Untxi jauna.

Eta, orobat, “beti aurrera” trenak.

Hurrekin elkarrizketa piztu dezakegu, Oskarren jostailuak, edota jostailuek hurrei gogora ekarri dizkieten irudiak mintzagai hartuta.

1. Zergatik dago lehoia beti ezkutaturik?
2. Zein da Untxi jaunaren jolasik gogokoena?
3. Zergatik inork ez du inoiz jirafa ezer esaten entzun?
4. Nora joan nahiko luke “beti aurrera” trenak?



➤ TARTA HANDI BAT EGIN DEZAGUN!.

Munduko urtebetetze-tartarik goxoenak egin diote aitak eta aitona Oskarri. Eta, tarta egiten ari direla, gozamena hartzen dute pentsatuz handi-handia, mendi bat bezain handia, izango dela.

Eta zuek ere tarta bat egiteko abentura gozoan parte hartu nahiko zenukete? Benetako festa, festa itzela izango da tarta hori!

Hemen dituzue dena antolatzeko lagungarri izango zaizuen errezeta bat, nahiz eta seguruenik beste errezeta batzuk ezagutuko dituzuen, hauek bezain gozoak.

GALLETA PASTELA



24 galleta laukizuzen.



300 gr. esne-gain.



Txokolate tableta 1.



Esnea eta urtzeko kakaoa.

✦ ✦ ✦

Txokolatea birrindu, ohol baten gainean eta labana erabiliz.

Hiru zatitan banatu.

✦

Esnea, kakaoarekin nahastuta, kaiku batean jarri, eta galletak bertan busti.

Kontuz, ez daitezela desegin.

✦

Azpil baten gainean, kokatu lehenengo sei galletak,
bata bestaren ondoan, lauki bat eratuz.

✦

Gainetik, zabaldu esne-gain geruza bat.

✦

Birrindutako txokolatearen parte bat gainaldetik hautsezatu.

✦

Beste sei galleta esnetan busti, eta aurrekoen gainean jar itzazu.

✦


Gainean, esne-gaina eta txokolate birrindua zabaldu. Berriz egin operazio bera eta, bukatzeko, eman esne-gain eta txokolate birrinduzko geruza bat.

✦

Pastela hozkailuan gorde.

✦

Emaitza hobeia izan dadin, aurreko egunean, bezperan presta ezazu.



➤ **MUDUKO OPARIRIK ONENA**

Oskarrek 5 urte bete zituenean, bere aitonak jostailu berezi bat oparitu zion: “beti aurrera” tren. Lehen, tren Alfontsoarena — aitarena— izan zen, eta harekin, txikitan, bidaia handiak egin zituen

Aitak eta amak besarkada handi bat oparitu zioten, eta berehala hasi ziren Oskarrek eta trenarekin jolasean

Ume bakoitzak bere gelakideei kontatuko die zer jaso zuen opari bere azken urtebetetzean, edota zer jaso nahiko lukeen hurrengoan. Halaber, guztion artean, munduko oparirik onena zein den asmatzen saia gaitezke. Zer neurri du? Zer kolore du? Zenbat balio du? Zertarako balio du? Zenbat irauten du? Opari-paperean bildu daiteke?...



➤ **TELEBISTA ITZALTZEA: JOLAS JOSTAGARRIA.**


Aitona Joserren iritziz, telebistak batzuetan pixka bat gogaitu egiten du. Etengabe hitz egiten du, eta lelokeriak esaten ditu. Hortaz, beharrezkoa denean ixilarazteko jolasa asmatu du.

Hurrekin jolas honetan aritzeko, hainbat bide ditugu:

1. TELEBISTAKO PERTSONAIA.

Irakaslea etengabe berriketan ari den telebista da. Hurrek, aitonaren trikimailua erabiliz, ixilarazi egiten dute. Handik gutxira, berriz pizten dute eta, gogait eragiten duenean, berriz ixilarazten dute.

Telebistako pertsonaiak hots ezberdinak, mezu interesgarriak, publizitatea, bolumen ezberdinak, eta abar tarteka ditzake.



2. AUKERAKETA POSITIBOA.

Ikus-entzunezkoen gelara joatea proposatzen dizuegu. Han, eroso-eroso eserita, jolasaren helburua telebista piztea eta itzaltzea izango da, kanal bakoitzean aurkituko dugun programaren arabera.

- Atsegin dugu ala ez?
- Zer dio?
- Zaratatsua da, ala ez?.
- Programa hori ikusi nahi dugu, ala jolastera joan nahi dugu?
- Zer egin genezake une hartan, telebista ikusten egongo ez bagina?
- Zein programarekin ez genuke telebista inoiz itzaliko? Zeinekin itzaliko genuke beti?

3. BENETAKO TELEBISTA.

Jolas hauek beren etxeetan egitera anima ditzakegu haurrak, beren telebistaren aurrean, eta aitak eta amak ere parte hartzera gonbidatuz.

➤ JOSTAILUZ BETERIKO HERRIALDEA

“Behin batean, erabat jostailuz betetako herri bat bazen. Den-dena jostailuz josita zegoen: eskola, etxeak, kaleak, teilatuak, zuhaitzak, leihoak... Eta, noski, herri horren umeei hainbat jostailuekin ezin zuten jolastu. Horregatik Jostailuz betetako herri horren jostailu gehienak izugarri aspertzen ziren: inork ez zuen beraiekin jolasten...”



Hau izan daiteke jostailuen ugaritasunari buruzko istorio baten hasiera. Has gaitzke relato honekin, eta gero umeei galdetu, istorioarekin jarraitzeko, jarraipen desberdinak sortzen, eta planteatutako gatazka konpontzeko irtenbide desberdinak asmatzen.

Kaixo!

Oskar izeneko haur baten aita, ama eta aitona gara.



Ni aita naiz. Alfontso dut izena, eta garaje batean egiten dut lan. Autoak oso gustuko ditut!



Ni Maria naiz, Oskarren ama. Egun osoa zapata, bota eta zapatilen artean ematen dut, zapata-denda batean egiten baitut lan.



Ni Jose naiz, aitona, eta erretiratuta nago. Arratsalde batzuetan Oskarren bila joaten naiz eskolara, eta ederki dibertitzen gara, txori-dendako animaliak ikusten eta haiekin jolastuz. Oheratzen denean, ipuin bat kontatzen diot, eta beste bat, eta beste bat...

Orain egun gutxi, oso istorio berezia bizi izan genuen hirurok. Oskarren urtebetetzearen bezpera-gauen izan zen.

Oso istorio ederra da, eta horregatik zuek guztiek ezagutzea nahi dugu. Hau du izenburua:

"TRENA"



Etor zaitetze antzokira, eta han kontatuko dizuegu.
Zuen zain gaituzue!.

Muxu handi bat, Oskarren aitaren, amaren eta aitonaren partez.